



## UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

## Ibarra neurtzen



**H**itzak neurtzeko aholkatu izan didate beti. Ez dakit horrelako esararik baden, baina gustura sortuko nuke nik bat: esan hitzak zenbat neurtzen dituzun, eta esango dizut zein

den zure neurria. Dena neurrian egin behar honetan lotuta sentitzen gara askotan. Neurritz kanpo ibiltzea delitu da. Gu, ordea, neurritz kanpo gabiltza batzutan. Batzutan luze, eta bestetan motz. Ezin neurrira egokitu. Hori ez da delitu, ordea. Gurean ez behintzat.

Ibarrako gazte talde bat ere neurrian sartu nahian ari da. Ahalegin handia egiten ari gara esan nahi dugun hori neurri jakin batean dotoreziaz sartze-

ko. Neurtitzetan ari gara, bai. Hamar / zortzi edo zazpi / sei. Neurri horietara errenditzean datza gure asteroko saia-kerak. Hitzak baino silabak neurtzen saiatzen gara. Nork dio neurriak ez duela inporta? Guk neurriari doinua jartzen diogu, eta gure oihartzuna herrira zabaltzea nahi genuke. Uda aurretik hasi zen bertso-eskola honek ez ditu indarrak neurtu nahi, baina kanpoko indarra behar du. Ni akuilu lanak

egitera joaten naiz, andereño figura betetzen dudala dirudien arren. Hala eskatu zidan zortzikote batek, eta gustura joaten naiz ahal dudan neurrian ahal dudana laguntzera. Hutsetik hasten denak, ordea, ilusioa baino zerbait gehiago behar izaten du beti, eta gu ere halatsu gabiltza. Ez dugu elkartzeko txoko fijoak. Kasuan-kasuan garaje nahiz elkarrean elkartzen gara. Lekua edozein dela ere gustura elkartzen gara, baina... betikoa, badakizue. Ea honi ere neurria hartzen diogun. Ateak zabalik ditu «Pototxotx» bertso-eskolak.

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak moztzeko eskubidea du

## Pernando Barrena Tolosan

Gobernua ezker abertzalearekin amaitzeko ahalegin zoroan murgilduta dago.

Garbi dauka ezker abertzaleak euskal herritarron gehien-gehienak hainbeste desiratzen dugun irtenbidearen alde, herritarron eskubideak errespetatzearen alde, herritarron hitza eta erabakia aintzat hartzearen

alde, hau da, gure Herriak hainbeste urtetan sufritu duen gatazkari amaiera emango dion marko demokratikoaren alde lan egingo duela.

Gainera, Gobernuak badaki ezker abertzaleak marko demokratiko hori lortzeko proposamen bat duela, bi autonomia-erabakia kontutan hartuz gauzatzen dena.

Gobernuak ondo daki proposamen hau mahai gainean jar-

tzearekin batera, ezker abertzalea proposamena maila praktikora eramateko gauza dela, indarrak bilduz, euskal herritarron eta eragile ezberdinen atxikimendua jasoaz.

Ezker abertzalearen proposamena gauzatuz gero ordea, Gobernuak itxita dituen eta itxita mantendu nahi dituen atek irekitzen dira.

Eta guzti honek urduri, oso urduri jarri du Gobernua. Horik ulertzen da, proposamen

hau gauzatzearen ardura eta zuzendaritza eramango duen mahai nazionala espetxeratzea.

Baina ezker abertzaleak, kolpe guztien gainetik proposamena mahai gainean mantentzen du eta honen alde lanean jarraituko du, gizarteratze lana eginaz eta bere alde urratsak emanez. Proposamen zintzoa delako eta demokraziari, askatasunari, herri honen geroari atek irekitzen dizkiolako.

Ostegunean, hilak 25, ilun-


tzeko 20:00etan Tolosako Kultur Etxean Fernando Barrenaren eskutik aukera paregabea izango dugu proposamen honen nondik norakoak ezagutzeko eta bizi dugun egoera politiko zail eta nahasi baina interesgarriari buruz argibideak jasotzeko.

Lerro hauen bidez nahi duen oro gonbidatua geratzen da.

KARMELE ELIZARAN ETA ANAJE  
URKOLA ▶ TOLOSako EZKER  
ABERTZALEAREN IZENEAN

## KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



IRITZIA ▶ IKER OTERMIN

## Munduan zehar mamu dabil

**M**undu guztian zehar bezala gure ingurunean ere, gaur egun bizi dugun gizartea gero eta indartsuagoa den polarizazio politiko nahiz sozial batek bereizten du. Ongizate estatu eta bake soziala bezala aurkezten zizkiguten ideia polit bezain hutsalak, praktikan, bere kabuz pusketan erortzen ari dira eztanda egiten duten gertakarien berotasunean (gerak, iraultzak, grebak, boterearen errepresioa...). Egoera honen aurrean termino medio gutxi onartzen dira, azken batean aurkako norantzetan aldentzen diren bi polo: alde batean gizar-tearen aurrerapenaren alde eta bere emantzipazioaren aldean kokatzen direnak, iraultzaren indarrak, eta bestean giza garapen honen aurka, lehen lorturiko konkista sozialaren aurka eta gizarte zaharkitua inposatu nahi dutenen aldean kokatzen direnak, kontrairaultzaren indarrak.

Nazioarte mailan Latinoamerikan ikus dezakegu maila goren batean

kasu hau ematen. Iraultza bolibariartarrak, Venezuelan batez ere, inperialismoaren alarmak piztuak ditu eta komunikabide burgesek honen kontrako gezur mordoak zabaltzen dihardute. Inperialismoak, Chavezen gobernuak azken aldiaren hartu dituen neurri iraultzaileak latinoameriketa guztira nahiz mundura, zabal daitezkeen beldurra du. Latifundismoa debekatzea, Banku Zentralari autonomia kendu eta herriaren zerbitzura jartzea, lan eguna asteko 36 lan ordura jaiste, nazionalizazioak aurrera ematea, jabetza pribatuaren aurrean jabetza kolektibo edo sozialari garrantzia ematea, estatu botereaz gain herri boterea ezartzea... Horrelako neurriak dira Chavezen gobernu modu autoritariorik gabe aplikatzen ari dena, egia esan benetan gobernu honek Venezuelatarren gehiengoaren nahi eta helburuak espresatu behar baditu neurri hauek oso motz geratzen dira, estatuaren, burokraziaren, jabetza pribatuaren eta ejertzito profesio-

nalaren abolizioa jo beharko luke eta langile demokrazia antolatutako ekonomia planifikatu bat eraiki, baina hori masen iniziatibak bete behar du.

Hala ere gurera bueltatuz, ezin ukatu honelako gertakizunek eta ekialde hurbilean gertatzen direnek oihartzun handia dutenik, nahiz eta gure ingurunean ere egoera ez dagoen batere lasai. Azken aste honetako Euskal Herrian bizi dugun egoeraren benetako goritasuna ederki espresatzen du. Alde batek Urriaren 4ean Baltasar Garzon epailearen zuzenpean emandako operazioak, Ezker Abertzaleko 23 kide atxilotuz, herri honetan *sorgin ehizak* mugarik ez duela erakutsi du, Estatuari benetan desafio egiten dion edozein talde jarraitua eta jazarria izango dela. Besteik Urriaren 12rako Rajoyek bota zuen hitzaldiak, lotsarik gabe espainiar faxismoaren ideologia ustel hori zabalduz, geroz eta indartsuago sentitzen diren banda faxistak (horiek bai terroristak) animatzea eta hauei adorea

ematea zuen helburu. Hori guztiari polo indartsuenak erantzun irmoa eman behar diegu, bai errepresioa bai faxismoa eskutik hartuta datoz eskuin erreakzionarioenetik eta masen metodo iraultzaileak berreskuratuz bakarrik lortuko dugu zabor hau betirako hilibira bidaltzea.

Ahal diren mobilizazio handienak egiteaz gain langile klasearen babesa bilatu eta greba orokorra konbokatzea dago. Hau aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa da langile klasearen tradizio onenak berreskuratzea, grebaren batzar informatibo eta prestatzaileak eginez bai auzo, herri, fabrika, ikastetxe... planfeteon banaketa masiboa, kotxe karabana informatiboak, bilerak ezkerreko erakunde sozial, sindikal eta politikoenkin... azken finean gazte, langile eta herriarren batasun handiena eskubide demokratikoen aurkako entengabeko kanpaina garatzea, honela estatu burgesari langile klasearen benetako indarra erakusten baitzaio. Ostiralean Iruñeako manifestazioan esan zuten bezala, antolatu egin behar dugu, herri, auzo, lantegi eta eskolatan.

BI HITZETAN ▶ PAKO LARRAÑAGA (PAKO LARRAÑAGA PRESOAREN OSABA)

## «Une honetan garrantzitsuenako Pako Espainiara eraman ahal izatea da»

**N. Lataburu** ▶ Aste honetan onartu du Espainiako Kongresuak Pako Larrañaga preso euskaldunak Filipinetan betetzen ari den zigorra Espainian bete ahal izateko baimena. Bere osabak, Pako Larrañaga alegiarak, «esperantza» azaldu du, «ea egoerari puntu finala jartzen diogun behingoz».

**Pako Espainian bete ahal du zigorra. Pozik, ezta?**

Beno, esperantza badugu. Espainiako Kongresuak onartuko zuela bagenekien, orain Filipinetako bi ganbarek onartzea falta da. Senatuaren onarpena falta da, baina badirudi onartuko dutela. Dударik gabe, orain garrantzitsuenako Pako Espainiara ekarri ahal izatea da.

**Noiz emango dizue daten berri?**

Filipinetako presidentek, Gloria Macapagal, Espainiara bisita egingo du urtea amaitu aurretik eta ordurako iruditzen zait lotuta izan nahiko duela baimena. Bi herrialdeen arteko hartu-emanak estuagoak izatea ahalbideratuko du honek. Hortik aurrera, martxo hauteskundeak baino lehen, Pako Espainiara ekartzea espero dugu, nahiz eta datarik ez dakigun.

**Albistearen aurrean, Pako nola dagoen jakiteko aukerarik izan al duzue?**

Duela 15 egun inguru gurasoak izan ziren berarekin. Ez daude erabat ziur zertan den.

Baina hona ekartzeak Filipinetan libre geratuko balitz izango lukeen arriskua saihesten du.

**Iritzi publikoaren presioaz ari zara?**

Bai, Pakok bermerik gabeko epaiketa izan zuten eta bertako iritzi publikoak frogarik gabe epaitu zuten. Hala ere, batzuk konturatzen hasia direla esan dit anaiek. Komunikabideek ere bere aurkako kanpaina egin zuten. Horregatik diot Pako-erantz garrantzitsua dela trukaketa hori aurrera eramatea. Gertatutakoa guztiz ahaztea ezinezkoa izango da, baina hemendik aurrera egoera hau guztia goxoago hartuko dugu, 11 urte eta gero.



N.L.

**Haatik, Euskal Herriatik nahiz Europatik Pakoren aldeko ekimenak burutu ziren.**

Pako Espainiara etorri ahal izatea hein handi batean ekimen horiei esker izango da. Hemen eta Espainian institutu guztiak Pakoren alde ager-

tu ziren. Filipinetara ere bidaiatu zuten hainbat politikarik. Laguntza Europatik, Amnistia Internazional-etik, eta 300.000 norbanakoetatik ere heldu zaigu. Haieki zor diegu asko.

**Behin Espainian, posible izango al da Pakori berme osoak dituen epaiketa berri bat egitea, berriuspen bat eskatuz?**

Hori oso zaila izango litzateke. Azkenean, bera Filipinetan epaitu dute eta bertako Auzitegi Gorenak berretsi zuten epaia. Berritoki ere kasua ireki ahal izateko, Epaitegi Internazional batek esku sartu beharko luke, eta Pakoren aurka deklaratu zuenak gezurretan aritu zela onartu beharko luke. Hori une honetan ezinezkoa da, pertsona hori desagertuta dagoelako. Guk beti defendatu dugu hori bagenekielako horrela libre geratuko zela.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

## TOLOSA ▶

Correosek  
elkarretaratzea  
egingo du  
protesta gisa

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Correosen ordezkariak duten sindikatu guztiek (CCOO, ESK, UGT, LAB eta ELA) bulegoko langileekin batera, protestak egingo dituzte. Bihar, Tolosan 11:00etan Nafarroa etorbidea 6 helbidean, 20 minutuko kontzentrazioa egingo dute. Correoseko Bulegoetako Sarearen Arduradunaren eta giza baliabideen arloan honek daraman kudeaketaren aurka izango da protesta.

Protestak urtarrietik bulego gehienetan dagoen langile faltak eragin ditu. «Herritarri ezin zaio zerbitzu egoki bat eskaini». Urritik aurrera egoerak okerrera egin du. Zenbait bulegoetan %50erainoko langile murrizketa suposatuko luke, lanez gainezka egongo diren urte sasoi batean, Gabonetan.

Gerentziak kontratazio nahikorik iragartzen badu, sindikatuok, lan uzte deialdiak egingo dituzte.

## KOMUNIKABIDEAK ▶

Txolarreren  
ateak zabalik

E. Ezeiza ▶ Irratia «ezagutzeko, saltzeatzeko eta gertuago sentitzeko» aukera izan zuten atzo, hainbat gaztek Txolarreren ate irekietako jardunaldietan. Bertan, eskualdeko irrati libreak funtzionamentua nolako den ikusi ahal izan zuten. HITZA

## TOLOSA ▶ AISIA

Txikiak ere handien  
pare skate-ko lehian

Skate Txapelketa izan zen atzo Bonberenean



Graffiti erakustaldiko une bat, atzo arratsaldean. NEREA URBIU

## ESTI EZEIZA

Bezperan parrandaren ajea igarotzen laguntzeko 7. Skate Txapelketa eta graffiti erakustaldia egin zituzten atzo Bonberenean. Egun osoan zehar beraien artelanak margotzen aritu ziren graffiti-gileak. Arratsaldean berriz, patineteak atera, hanka azpian jarri eta lehian hasi ziren gazteak, bakoitzaren abileziak erakutsiz. Zazpigarren edizio honetako irabazleek Donostiako Slap eta Tolosako Nimbin dendean eskutik lortutako materiala eramán zuten etxera.

Gauean berriz, asteburuko ekitaldiekin jarraituz, HR eta Stepy Selektah taldeen kontzertua izan zen. Hauek, Selektah Kolektiboa eta Bad Sound System taldeko partaideak dira eta giro aparta jartzea lortu zuten beraien eritmo eta erimekin.

## AZOKA ▶

Santu Guztien  
Eguna hurbil  
dela nabari da  
jada azokan

Jendea hasita dago egun horretarako enkarguak egiten, azokako lore postuetan

## PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna gogotsu hasi zen lehen orduetik. Eguraldia freskoa zela eta, erosle asko izan ziren mahaietara goiz agertu zirenak, erosketak garaiz egiteko helburuarekin.

Aukera oso zabala izan zen. Barazkien artean neguko eta udako produktuak izan ziren salgai. Oraindik badaude piparrak, lekak edo eta tomateak, eta dirudienek aste batzuek behintzat, oraindik izango dira salgai. Perretxiko zerranda zabalak izan zen. Onddo, ziza horria, gibeldurkina, nikalaoa eta kuletroa salgai izan ziren mahaietan.

Aipatzekoa izan zen atzo, Berdura plazako apaingarriko landareen postuetan ikusitako eskaintza. Santu Guztien Eguna gainean dugula, saltzaileek enkarguekin hasi dira dagoneko; atzo gainera, ziklamineak, krisantemoak, edo eta landinak ekarri zituzten beste-en artean.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Krisantemoa	3,00	12,00
Salbia	1,00	1,20

<b>Bertako produktuak</b>		
Onddo	10,00	24,00
Gaztaina	3,00	-

<b>Produktu ekologikoak</b>		
Sagarra	2,00	3,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00

Orendain

**Non eman behar da izena?**  
Orendaingo Udaltasuan,  
943 654 954 telefonon.

**Arrasate Inbertsioak  
eta Zerbitzuak S.A.**  
902 117 017  
telefonoa deituta,  
edo helbide honetara  
mezu bat bidalita:  
arrasate@vimeoarrasate.com

[www.inmoarrasate.com](http://www.inmoarrasate.com)

## Bizi ingurune zoragarrian

Prezio Tasatutako 19 Etxebizitzien Sustapena  
Kooperatiba Erregimenean

Orendaingo Udaltasunaren laguntza:

Enpresa kudeatzailea: Finantziaketa:

Beharrez:

**ASTEASUKO  
LANTEGI BATEAN  
TORNEROA  
BEHAR DA.**  
DEITU: 652 72 41 69

**BERRIaren edizio digitalean  
diseinatzaile/programatzaile lanpostua  
betetzeko pertsona bat behar da.**

Erreferentzia: 200710 EH-DP

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzera.

Eskaintzen da:

- Sei hilabeteko kontratua (luz daiteke).
- Lanean berehalak hastea (azaroran).

Bidali curriculum gba@berria.info helbide elektronikora,  
erreferentzia zehazturik, urriaren 26a baino lehen.

BERASTEGI ▶ GIZARTEA



**Oraingoan bai, oraingoan bai!**

**Erredakzioa** ▶ Azkenean: azkenean, Pirritx eta Porrotxen saioa Berastegin egin ahal izan zuten. Eta ez alferrik, jende asko espero baitzuten Berastegin. Leitzaldeko jendea ere hurbildu zen pilotalekura. Pirritx eta Porrotxekin batera Mari Mototx ere izan zen, eta dantzan jarri zituzten haur guztiak. E. EZEIZA

TOLOSA ▶ GIZARTEA



**San Esteban auzoko txokoetan**

**Erredakzioa** ▶ Haurrek eta gaztetxoek altxorraren bilara jokatu zuten San Estebango Kultur Astean. Ferialekutik atera eta kaleetan zehar bilatu behar izan zituzten probak. Mahai gainean gaztainak eta barraskiloak ikus zitezkeen: auskalo nondik ibili behar izan ziren gure gazteak, batez ere, ondo pasatzeko. ESTI EZEIZA

 **idealista.com**  
Ez pasa kasurik egin gabe  
doako iragarkiak partikularrentzat

**BANAKETA ENPRESA** batek banatzaileak behar ditu Donostian, Urolan eta Tolosan.

**Lan baldintzak:**

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

**Ezinbestekoa da autoa izatea**

Deitu lehenbailehen telefono honetara: 943-30 43 41. Edo bidali zure datuak helbide elektronikoa honetara: lanpoltsa@etxeraino.net.

IBARRA ▶ KIROLAK

**«Unai Otañoren izerdiak balio izan du zerbaitetarako»**

Euskal Herriko Aizkora Txapelketan bigarren egin ondoren, omenaldia egin diote Izaskunen, auzotar eta ingurukoek



Jexux Mari Lasa legorretarra eta Joseba Otaegi aritu ziren aizkoran atzo, omenaldian. NEREA URBIZU

**ESTI EZEIZA**

«Lehen Mailako Euskal Herriko Aizkolari Txapelketan bigarren postuan geratzeak ospatzea merezi duelako» omenaldia egin diote Izaskunekoek, bere auzotar den Unai Otañori. Hau gustora agertu da, jaiarekin.

Izan ere, bere esanetan, «pozgarria da ikustea jendea atzetik dagoela eta interesatzen dela.

*Hire izerdiak zerbaitetarako balio izan dik Orieta* leloa atzean zutela, lehendabizi agurra dantzatu zioten ibartar aizkolariari. Ondoren, aizkolari baten

omenaldian falta ezin dena izan zen, hau da, aizkora erakustaldia. Lan horretan aritu ziren Jexux Mari Lasa legorretarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra. Ondoren festarekin jarraitu zuten Izaskun auzoan bertan, aizkolariaren ahaide eta lagunek.

 **30 min +10 te glia**

**IMH Elgoibar**  
2007/10/25  
9:00-14:30

**Mintegia**  
Makina erreminta arloko enpresen erantzukizun soziala, euskara baliabideak eta praktika onak

<p><b>Sarrera</b> ELGOIBARKO USALA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUJORDETZA</p> <p><b>Enpresa eta hizkuntza kudeaketa</b> Pilar Kalfasola Ibon Aizpuru ELEKA Daniel Herremaitia EHU-UPV</p> <p><b>Praktika onak</b> Aire Industrial (Kutxabank) Gogoyen Pasako Postuko Agintaritza Kontabilak</p>	<p>Eloy Leode Dababarraneko Udalak ANAE-REX</p>	<p><b>Omenaldia</b> Euskara plana abiatu zuten lehen enpresari esker onak: Arian, Caf, Eley, Berlan, Ineko, Logintza, Miba.</p> <p><b>Produktu eta zerbitzuak</b> Gizuzkoako Foru Adundiko Ogasun Zerbitzuak HPS- IKT Inbentarioa Elkargirako eskaintza Mugim CNC Kutxabank zerbitzuak enpresentzat</p> <p><b>Amalera</b> MH - ANAE, Makina Erremintaren Museoa lanitza eta bitarteko bitartek</p>	<p>Intotec - CRM/Striming S.S zerbitzuak enpresentzat Dira zerbitzuak Fagor Automation/ WinDCN Zundari - Open Office, software libreak Danizket eskuliburu teknikoa</p>
--	---	--	---

INFORMAZIOA ETA INSKRIPZIOA IMH, Elgoibar - Laine Aberdi - 943 74 41 32 - imh@imh.es www.imh.es

Oharra: Arretu Nagusiak aldi-beteko euskara-gaztelera itzulpen sistema izango du



MIREN GONZALEZ ▶ MARGOLARIA

# «Indiako kulturarekin konektatzea zaila izan arren, hori islatzen saiatu naiz»

Miren Gonzalez margolariak Artista Berrien XLI. Lehiaketan aurkeztu du bere azken lana, eta saritua izan ez den arren, beste 11 artisten lanarekin batera Koldo Mitxelena erakusgai dago

NAIARA GARZIA

Artista Berrien XLI. Lehiaketarako 11 lan aukeratu zituzten Koldo Mitxelena erakusketa egiteko eta lehiaketa honen barruan urtero 2 artista saritzen dituzte. Aurten, Miren Gonzalezen lana (Tolosa, 1973) aukeratuetakoa bat izan da, baina ez dute saritu.

**Zure lana azkenean Artista Berrien XLI. Lehiaketan ez dute saritu. Espero al zenuen?**


Horrelako lehiaketetan zaila da, arlo ezberdinetako lanak daude eta. Edozeini tokatu lekiokela bagenekien, eta pena hartzen duzu, azken batean saria lanean jarraitzeko diru laguntza bat baita, baina Koldo Mitxelena erakusketa egitea beti ongi dago, eta kontentu gelditu nintzen nire lana nola antolatatu duten ikusita.

**Tesia amaitzen ari zara. Zeren inguruan da?**

Ez da nire lanari buruzko tesi bat, baina nire praktika ere sartzen dut. Urte hauetan pintatzen aritu naizenean errepikapenean eta konbinaketan oinarritu naiz, eta neurri batean hori teorizatu dut. Nik uste gehienbat nire tesian garrantzitsua dena oso esperimientala eta praktikoa dela, azken batean metodo bat aurkezten dut gero nahi duenak erabiltzeko. Hitzekin ideia hau azaltzea nahiko zaila da eta jendeak ulertaraztea. Nik koadroak hainbat unitaterekin egiten ditut, denak errepikatuak. Unitate hauek laukiak izaten dira eta gero biraketaren bidez emaitza ezberdinak izan ditzake koadro berean.

**Ikasketa aldetik zuretzako garrantzitsua zer izan da?**

Nire lehenengo irteera Londresera izan zen eta han hasi nuen margotzen. Ikastaro batzuk egin ondoren han edo hemen jarraitu erabaki behar nuen, eta gerturatzea erabaki nuen. Nire aukera lehenengo 2 urteak Cuencan (Espainia) ikastea izan zen eta gero, karrera amaitzeko, Bilbora pasa nintzen, beste 2 urtez. Ondoren jada doktoitzarekin hasi nintzen. Niretzako garrantzitsua Eusko Jaurlaritzaren beka lortzea



izan zen eta horrek tesiarekin hasteko aukera eman dit. Diru laguntza horrekin ere nire proiektuarekin lanean aritu naiz eta lau bidaia handi egin ditut, Argentina, Tailandia, Brasil eta Indiara.

**Margolari bezala zuretzako ezinbestekoa den hori unibertsitatean topatu duzu edo hortik kanpo?**

Unibertsitateak proiektu batzuk garatzea eta burutzea behartzen zaitu. Ni oso gustura ibili naiz ikasten, baina orain tailerra Artelekun daukat, eta niretzako garrantzitsua kontaktatu hori da. Artisten lana bakardadean burutzen da askotan, zure tailerrean bakartu egiten baitzara. Horrelako gune batek zure inguruari erreparatzeko aukera ematen dizu, giro horretan mugitzeko, zure burutik haratago joateko, baita unibertsitateak ere. Beti besteek zer egiten duten ikustea oso garrantzitsua da, zure lanetik kanpo gertatzen denaren berri izan dezakezu.

**Artelekun artista ezberdinek zure lana garatzen duzue, beraz?**

Bai, hemen daude estudioak alokairu bajaran. Honetaz gain liburutegi on bat dago, aldizkariak, gainera jarduera asko egiten dira. Giroaren barruan egotea garrantzitsua da.

**Londresen, Argentinan, Brasilen, Tailandian eta Indian izan zara.**

Bai. Erakusketa honetan aurkeztu dudana lana Indiatik ekarritako ideiekin egin dut. 6 hilabete egon nintzen, ideiak hartzen, marrazten, eta gero 2 urtetan lan hori garatu dut, edo behintzat horretan saiatu naiz eta 20 koadro aurkeztu ditut.

**Indian inspiratu zara beraz erakusketa honetarako?**

Bai, testu bat ere badago, eta bertan integrazioaz hitz egiten dut.

**Kanpoan izatea eta gero zure tallerrean ideia horiek garatzea, zer moduzko metodoa da?**

Niretzako horrela lan egitea perfektua da, zoragarria izan da eta asko ikasi dut. Niri dinamika hori gustatzen zait, kanpoan denbaldi bat egotea, pixka bat ideiak freskatzeko eta honera etorri eta lantzeko.

**ARTELEKU**

«Horrelako gune batek zure inguruari erreparatzeko aukera ematen dizu, giro horretan mugitzeko»

**SORMENA**

«Nik uste artistek egiten duguna behar hori daukagulako egiten dugula, ongi sentitzeko egin behar dugu hau»

Niretzako oso aberasgarria da, eta gehienbat bidaietako esperientzia ikaragarria da. Asko ikasten duzu, bereziki jendeaz. Indiako bidaia oso emankorra izan da zentzu horretan. Hain gizarte ezberdina da, ahalik eta gehien ikasten saiatu naiz, horretan pixka bat sartzen... eta oso zaila egin zait hori dena ulertzea. Azkeneko lan honek pixka bat horri buruz hitz egiten du, zeinen zaila den horrelako kultura batean integrazioa, ulertzen saiatzea eta gero nire erara ekartzea eta nire pintatzeko erarekin konektatzea. Niretzat zailtasun hori aberatsa da, interesatzen zaidana da. **Indiara egindako bidaia beste lekuetara egindakoa baino zailagoa izan da, beraz?**

Beste bidaia batzuk, Brasilekoa, Argentinakoa, esaterako, lasaigoak izan dira. Gure kulturarekin zerikusia handiagoa dute, edo errazago ulertzen ditugu, marrazteko orduan ez da hain konplexua edo ez zait hain konplexua egin edo beharbada neronek ez dut hain zaila egin. **Zailtasun hori beraz aberasgarriagoa da lan egiteko orduan?**

Bai, niretzako interesgarria izan da.

**Erakusketa asko egin dituzu. Zein azpimarratuko zenuke?**

Nik azpimarratuko nuke nire bakarkako erakusketa handiena. Tolosan izan zen, Aranburu Jauregian. Tolosak badauka akordio bat Iruñarekin eta katalogo txukun bat egin zen. Bakarkakoa egin nuen eta erakusketa handi bat izan zen. Askotan talde-erakusketetan sartzen zara eta beste guztien artean zerbait jartzen duzu, baina bakarkako erakusketa batean ibilbide bat ikus daiteke eta koadroak giro baten barruan ikusi.

**Reusen ere erakusketa egin zenuen.**

Bai, ni Bilbo Arten negoen lanean eta Reusen galeria bat zuen emakume batek nire lanari erreparatu zion. Bere galerian antolatzen zen lehiaketa batean parte hartzeko animatu ninduen eta sari hori irabazi nuen. Saria bere galerian bakarko erakusketa egitea zen. Han koadro asko jarri nituen eta ia erakusketa osoa saldu zen. Bultzada ona izan zen, eta publizitate ezin hobea.

**18 urterekin hasi zinen marrazten. Ildo argi bat al du zure lanak?**

Errepikapenean eta konbinaketan oinarritzen naiz eta hori da dena elkartzen duena, baina unitate barruan lantzen ditudan gaiak ezberdinak dira, nire bidaiekin zerikusia izan dute. Brasilen egin nituen marrazkiak oso ezberdinak dira orain Indiako lanarekin alderatuz gero, baina formatua beti berbera da: errepikapena eta errotazioaren bidezko konbinaketa. Gero motibo ezberdinak erabiltzen ditut: geometrikoak, oso organikoak, espressionistak...

**Publikoaren eta artistaren arteko harremana nola ikusten duzu?**

Ni nire lana azaltzen saiatzen naiz eta jendeari ulertarazten, baina ez dakit hori nire esku dagoen. Nik uste artistak egiten duguna behar hori daukagulako egiten dugula, ongi sentitzeko egin behar dugu hau. Gero emaitzak eta erreazioak... Iritzi ezberdinak entzutea polita da, arte munduko jendeak emandakoak izan edo ez.

**Egin dituzun lan guztietatik ba dago baten bat bereziki gustatzen zaizuna?**

Ni beti mementuan egiten duanarekin oso hunkituta nago, egin ondoren atera nahi izaten dut, erakutsi edo saldu, eta proiektu berri batekin hasten naizenean berriro erabat hunkitzen naiz. Mementuan egiten ari naizen koadroa, hori izaten da faboritua.

**Artetik bizitzea posible al da?**

Oso zaila da. Hari batetik zintzilik zaude erabatean, beti zain, hurrengo urteak zer ekarriko duen zain, baina nik zorte han-

dia izan dut, beka honekin eta beste beka txiki batzuekin, nolabait oso ongi moldatu naiz. Baina argi dago konbinazio bat ere bilatu behar dela. Nik jarraituko dut nire lana egiten, baina beste gauza batekin konbinatu behar dut, lasaitasun hori ere behar dugulako. Sistema honetan sartuta gaude eta sistema honek era batetara bizitzea bultzatzen gaitu. Denok gure gastuak dauzkagu, eta hau ez da beste lan bat bezala, batzuetan lan asko daukazu, enkarguak, proiektuak... eta beste batzuetan ezer ez. Segurtasun aldetik ez da oso egonkorra, baina ni horren bila nabil.

**Enkarguak ere izaten dituzu, beraz?**

Horrela lan egitea ere gustuko dut, adibidez, norbaitek espazio bat erakustea eta nik bertan zer irudi jarri eta nola jarri daitekeen proposatzea. Esate baterako, etxe batean norbaitek zerbait jarri nahi du, ni ar-

gazki makinarekin joaten baina gero muntaketa bat egin dezaket eta pertsona horri aukera asko eman, nire koadroko posizioz alda baitaitezke, eta horman espazioaren arabera kokatu: izkina egiten, goitik behera... Niri horrela lan egitea gustatzen zait, batzutan oso zaila baita nire koadroak beste espazio batean imajinatzea, asko alda daitezke.

**Aurrera begira zer proiektu dituzu?**

Nik oraintxe bertan itxaropena Alemanian jarrita daukat. Emakume batekin lanean hasi naiz, manager modura, nire lana han saltzeko, eta zerbait aterako dela uste dut. Dena politikoki doa, orain marrazkien erakusketa txiki bat egingo da azaro amaieran, eta hurrengo urterako ere beste proiektu bat daukagu, olio-pintura erakusketa handi bat egiteko, baina pixka bat zintzilik dago. Salmenta batzuk ere egin ditut han.



HITZA

**MIREN GONZALEZ ▶ ZENBAIT ERAKUSKETA**


Gonzalezek 35 erakusketatik gora egin ditu urte hauetan. Hona hemen hauetatik zenbait:

- 35 ERAKUSKETATIK GORA 1995.** *Autumn Exhibition*, talde-erakusketa, Londresen.
- 1998.** EHUren ikusentzunezko 10. erakusketa, BBVren egoitzan (erakusketa honetan behin baino gehiagotan parte hartu du).
- 2000.** *Fragil* talde-erakusketa, Gebon.
- ▶ *Bionatur* argazki erakusketa, Leioan.
- ▶ *Habitos deshabitados*, Arte

- Ederretako ikasleen lanen erakusketa, Zarautzen.
- ▶ Soinudun eskulturak, talde-erakusketa, Gasteizko Araba aretoan.
- 2001.** *Okupgraf*, talde-erakusketa, Tolosako Aranburu Jauregian.
- ▶ *Kanikak*, talde-erakusketa, Barakaldo aretoan.
- ▶ *Lluve sobre mojado*, taldekoa, Gasteizko ur-deposituan.
- 2002.** *Katalogo Galeria Orokorra*, taldekoa, Bilbon.
- Hemen ere behin baino gehiagotan parte hartu du

- ▶ *Akabo artea*, Kalderapeko tabernan, taldekoa, Bilbon.
- ▶ *Getxoarte 2002*, banako stand-a, *komunitate* proiektua.
- ▶ Antoni Pinyol Galerian, talde-erakusketa, Reusen, Tarragonan (2 aldiz).
- ▶ Basandere galeria, banako erakusketa, Bilbo.
- ▶ Dato aretoa, banakako erakusketa, Gasteizen.
- ▶ Bilbo Arte, Bilbon.
- 2003.** Koldo Mitxelena.
- 2004.** Tibao du Sul kultur-gunean, marrazkien erakusketa, Pipan, Brasilen.

- ▶ Tolosako Aranburu Jauregian, bakarkoa.
- ▶ *Chill out* kafetegian, Thailandian.
- ▶ *Galeria Carme Espinet*, bakarkako pintura erakusketa, Bartzelonan.
- 2005.** *Matxin eta Miren* marrazkien erakusketa, Tolosako Aranburu Jauregian.
- ▶ Bakarko erakusketa, Iruñeko gotorlekuan.
- 2006.** India hegoaldean.
- ▶ Tarragonan, taldekoa.
- ▶ Urreboxun, taldekoa.
- 2007.** VITO 021 aretoan, bakarkakoa, Donostian.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Tolosaldeko AHT Gelditu Elkarlanak deituta eskualdeko bilera egingo dute bihar 20:00etan Kultur Etxean.

**Tolosa.** San Esteban auzoko XX. Kultur Astea: diana Udaltxistulari Bandarekin 9:00etan; trikitixa baserrietan 10:00etan; meza San Frantziskon 11:00etan; toka auzoko txarangarekin 12:00etan; zikiri jatea 14:00etan; ondoren dantzaldia Koxkorrena orkestrarekin.

**Zizurkil.** Azoka Berezia Zizurkil goian 11:00etatik 19:00etara: baserri eta artisau postuak izango dira, 13:00etan, berriz, sari banaketa, 14:00etan txerok jatea, 17:00etan ponyak; 17:30ean txori eta hegazti harraparien erakusketa, 19:00etan zaldi gaineko zetreria.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648  
**Leitza.** Campos, M. Elbarren, 52. 112.

**Bihar**

**Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Etxeko pintxoekin lagunduta

**UGANE ▶** Lainoan eta fresko esnatu da Tolosako auzoa, baina giroa berotuz joan ahala eguzkia ere atera zen, dantzarien saioaren edertasuna areagotuz

**NEREA URBIZU**

**U**gane lainoan zegoen oraindik: 11:30ean jendea zebilen, txirindularen zain. Txirindulari igoeran 10 bat lagun atera ziren: lehena Eñaut izan zen; ondoren, Unai eta 3. Jon. Parte-hartzaile guztiek domina jaso zuten. Ordu-rako eguzkia atera zen.

Desafioa egin zuten ondoren, Joxe Mari Garmendia korrika eta Joxe Mari Insausti bizikletan eta bertan Insausti iritsi zen lehenago Uganera, nahiz eta Garmendia berehala heldu. Ikaztegieta dantzarien txanda izan zen ondoren, eta bertakoek prestatutako pintxoak dastatzeko aukera izan zen bitartean.



Auzokideek prestatutako pintxoak zeuden: merke-merkeak eta goxo-goxoak, mondejua, txorixoa... N. URBIZU



Txirindularen igoeran parte hartu zuten haurrak dominarekin. N. U.



Garmendia eta Insausti, desafioaren ondoren. N. URBIZU

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

**Josefa Otamendi (Amezketeta).** Bihar 99 urte. Zorionak eta muxu handi bat zure hiloba eta biloben partetik.



**URTE ASKOAN**

**Mirentxu.** Zorionak eta ondo igaro bihar urtebetetze eguna, familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Eneritz (urriaren 15ean) eta Naroa gaur.** Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

**RENAULT**  
**TOLOSA IRAULI BEHARREAN**

Zain egon zara, eta horra. Gero ere, Tolosan... AUTOAZOKA, AUTOBERRIren sekulako Ibilgailu Azoka.

Urriaren 25etik 27ra aukera paregabea duzu bila ibili zaren ibilgailua aurkitzeko, gamarik ugariena baitaukagu modelo matrikulatuetan, km-rik gabe, aldean eramane dezazun. Zatoz urriaren 25, 26 eta 27an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 20:00etara.

AUTOAZOKA iraultza da.

AUTOAZOKAn ibilgailu bat erosit gero, hemen ikusten den TOMTOM nabigatzailea oparitutako dizugu **200€\*** eta gainera

**AUTOAZOKA AUTOBERRIEN**  
 urriaren 25, 26 eta 27an

\* Irargari hau aurkeztuz

**AUTOBERRI**  
 Anoeta Industrialdea, z/g Tel.: 943 65 28 43 TOLOSA